

Goierri tarra

16. korrika

358. zenbakia 2009ko martxoak 27




ongi
etorri

ALTAMIRA
JATETXEA



Altamiran
sukaldaritza
maite dugu

Altamirako kirolgunea / Ordizia
T 685 794 755 / altamira@geri.net



reklone

berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
 Instalazio industrialak eta etxeokak, eguzki-energia.
 Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
 Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
 Tel.: 943 653 307
 Tel. / Fax: 943 650 520
 E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
 Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
 Fax: 943 675 421
 E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:
I. Fdez Ornaburu Dra.
 (Medikuntza estetikoan masterra)
A. Ramirez Baigorri Dra.

Kursal
ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51


Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN

- GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU ultrasoinuen bidez

NOBEDADEA

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa


- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04

BERTSOTAN

Korrika 16



Endika Igarzabal

Tuteran hasi lasterka eta Gasteizen du amaiera bide horretan Euskal Herria zeharkatzen du gainera. Gure herrian oraina eta etorkizuna geu gera ea horrela zabaltzen dugun lau haizetara Euskera.

Denok korrika egin dezagun, baina ez da lasterketa ia bi mila kilometrotan bazterrak jendez beteta nahiz Goierritik gauean pasa jarri dezagun arreta parranda ere hala da baina apuntatzen gera eta.

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbalde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

Faxa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Goierritarra

diruz laguntzen duten erakundeak:

Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

AURKIBIDEA

4. Iritzia: Aitor Aranburu.

5. Ingurugiro txokoa: Argi kutsadura (I)

6. Euskara txukuntzen: Denetik (XVII)

8. Aholkua: GAP programak.

9. Erreportajea: Korrika 16.

14. Erreportajea: Autogintza.

17. Elkarrizketa: Autodeterminazioaren Aldeko Idiazabalgo Herri Ekimena.

22. Non zer.

26. Argazki zaharra.



ZUZENKETA

Aurreko GOIERRITARRAN Maialen Etxeberria Bosque Atletico San Sebastianeko errugbilariari egindako elkarrizketan bere lehen abizena 'jan' genuen. Barkamena dagokionari.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



Aitor Aranburu

30 urte krisian

Bateko krisia eta besteko hauteskundeak, ez da giro azkenaldian. Diruaren aparrak harrapatu omen du gaina eta orain hasi da goitik beherakoa. Hauteskundeekin batera amaitu ziren promesa, irribarre faltsu eta diskurtso demagogikoak. Eta berriz azaldu dira langabeziaren datuak, hainbat enpresatako hots txarrak, eta itxura denez esne-mamitan bizi izan garen garai horren amaiera.

Baserritarrok 30 urte daramatzagu krisian, 30 urte lanpostuak galtzen nahiz eta lanik falta ez, 30 urte agintarien utzikeria pairatzen: datuen arabera Euskal Herrian egunero dago bere jarduera uzten duen baserritarren bat. Baina ba al dago inor aintzakotzat hartzen gaituenik?

Behi-esneak 11 zentimo egin du behe-urtebetean, arkumea kiloko 3 euro egin ezinik, eta kristo-etxetik datorren behi haragia hemen kostatzen dena baino merkeago sartzen da. Elikagai bakoitzak 4.000 kilometrotik gora egiten ditu batz bestea, eta gero merkatu eredu hau defendatzen dutenak entzungo ditugu telebistan kontsumo arduratsua egiteko, zabor kopurua eta energi gastua gutxitzeko, eta klima aldaketaren aurkako neurri egokiak har ditzagula eskatuz.

Eta honen aurrean zer? Kapitalismoaren arduradun nagusiak (AEBetako lehendakaria barne) entzun ditugu merkatu lokalaren garrantzia azpimarratzen. Ibili-ibili

egin eta betikoa. Nekazaritzan ere bide berriak probatu behar, baina hor ere kontsumitzailearen inplikazioa beharrezkoa da. Goierrin aukera berri batzuk azaldu dira lehengoez gain, baserrietako generoa erosi ahal izateko non eta nola hazita dagoen jakiteko moduan, eta bitartekariak kenduz prezio onargarri batean.

Bertako eta kalitatezko haragiarekin ari diren harakinak, "Goierriko baratza" dena produktu ekologikoak nahi dituenarentzat (nongoa den galdetuta), beste hainbat denda txiki, Ordiziako azoka asteazken eta ostiraletan, inguruko artzainen arkume, mamitarako ardi-esne eta gaztaiak, salmenta zuzeneko behi-esnea, ogia, eta orain baita salmenta zuzeneko behi haragia ere. Eta zein da orain aitzakia? Ez ordutegia eta ez prezioa behintzat.

Krisiak krisi eta hauteskundeak hauteskunde baserritarrok ere jarraituko dugu esistitzen, eta gogoratu ere gogoratuko dira noizean behin: Santo Tomaseta behintzat, Ordiziako gaztai txapelketa egunean, edo "Ven y Cuentalo"ko kanpainetan, edo telebistan gaur egun ikusi daitezkeen tele-sail eta programetako pertsonai gaizki estereotipatueta (Goenkale, Vaya Semanita, Granjero busca...). Baserritarrok ordea, egunero gogoratu, eguneroko erosketetan elikagai bakoitzaren atzean zer dagoen begiratu eta horren arabera aukeratuko duen kontsumitzailea behar du.

Baina lasai, etorri da udaberria: loratuko dira belardiak, kimu berriak botako dituzte zuhaitzek, irauliko ditugu soroak eta gure lurra maite dugunon lan eta euri-malkeekin erneko dira uzta berriak. Gure kultura, ekonomia eta nortasuna biziberritzeko garaia da: gure herriaren 30 urteko krisi sakonari buelta ematen hastekoa. Bestela, gure etxean maizter izaten jarraitu beharko dugu.

Baserritarrok, eguneroko erosketetan elikagai bakoitzaren atzean zer dagoen begiratu eta horren arabera aukeratuko duen kontsumitzailea behar du.

IÑAKI ARIN

aseguruak



943 888 702 Oriako pasealekua, 20 BEASAIN



MENDIZABAL

abeltzaintza

Baserriko haragia salmenta zuzena

686 325 511- Juan Antonio
686 301 313- Maria Luisa

www.baserrikoharagia.com

Mendizabal Baserria
 20.248-Arama (Gipuzkoa)




Argi kutsadura (I)

2009. urtea Nazioarteko Astronomiaren urtea izendatu dute. Ospakizun hauen harira Argi kutsaduraren arazoa azalduko dugu, naturaren eta beraz guregan duen eragina eta ondorioak. Lehenengo atalean zer den eta ondorioak agertuko ditugu eta bigarrenaren arazoari aurre egiteak dituen onurak.

Zer da Argi Kutsadura?

Argi kutsadura edo atmosferara argia igortzea, alperrik zerura igortzen den argia da. Beste era batera esanda: Emisio fokoaren horizontalaren gainetik iturri artifizialetatik datorren argia eta zeharka emititzea izango litzateke. Gure kaleetako argiztatze desegokia eta apaingarri gisa erabilitako argiak (monumentuak argitzeko, iragarkiak, erakusleihoak,...). Beraz aprobeztatzen ez den eta zerura doan argia, energia xahutzea da. Honen ondorioz Argi globoa edo argi koroa sortzen da, gaueko zeruari laranja kolore berezia emanez.

Gau iluna argitzearekin batera izakion esna eta loaren zikloak aldatu dira. Gaueko harrapariek arazoak dituzte ehizatze eta egunekoek ordea gehiegi



ehizatzen dute. Intsektuei ere, beraien ugalketa zikloa aldatzen zaie gehiegizko argiarekin eta ondorioz beraiek polinizatzen dituzten landareek kalteak jasaten dituzte. Gizakiongan iluntasun ezak gaueko ikusmena atrofiatu digu. Logabezia eta urduritasun arazoak sortzen ditu eta melatonina hormonaren jarioa murriztea dakar.

Honetaz gain, hiriek sortzen duten argi koroak urrutitik ikusten dira. Esate baterako, Madrilgo argi-koroa 20 km altuerara iristen da eta Bartzelonakoa Ma-

llorkatik ikus daiteke, 300 kmtara. Igaratzen Goierriko herriek sortzen duten argi globoak gau iluna deuseztatzen du.

Bestalde, alferrikako argiztatze honek ez digu zeruko izarrek ikusten uzten, zeruko edertasuna miresteiko aukera galerazten digu; izar usoak, galaxiak, kometak, ilargia, planetak, eklipsea, artizar eta abar luzea. Astronomoek izartegia aztertze arazoak dituzte, Espazio urrunetik datorren argia ezin dutelako jaso. Astronomiako ikerlariak Starlight ekintza martxan jarri dute argi kutsadurak pairatzen ez duten guneak sortu nahi dituzte, "Reservas Starlight". Izartegiaren behatokiaren inguruan, bioaniztasunari eragiten dion lekuetan eta izarpean berriz bizi nahi duten herrietan. Kanada, Hegoafrika eta Amerikako Estatu Batuetan jadanik badaude leku babetuak.

Koro Irazustabarrena

"Etorkizuneko belaunaldietako pertsonak kaltetu eta kutsatu gabeko Lurrean bizitzeko eskubidea dute, baita zeru garbirako eskubidea ere"

UNESCO

JAKIN BEHARREKOAK

Iñurritzako biotopoaren hobekuntzarako Gipuzkoako Foru Aldundiak diru laguntza emango du honako jarduerako: baimenik gabe eraikitako txabolak eta erainkuntzak desegiteko eta ur hodiak mendi magalera desbideratzeko.

"El mundo según Monsanto". Marie-Monique Robin, Trangenikoan enpresa honi buruzko ikerketaren berri ematen digu. "Hazien merkatua mendearen hartzea da munduko populazioa kontrolatzeko modurik onena", Vandana Shiva ekofeminista indiarren esanetan. Monsanto transnazionala hauxe ari da egiten aspaldi honetan.

Hemengo eta betikoak direla iruditzen zaigun zenbait barazki Amerikatik ekarri ziren XVI. menditik aurrera. Artoa, indibaba, piperrak, toma-tea, lekak eta patata daude hauen artean. Patata, adibidez, XIX. mendearen erdialdetik aurrera hasi zen jaten hemen eta urte asko behar izan zen jaki hori onartua izateko biztanleriaren artean. Aurrena apaingarri gisa erabili zen, gero abereak elikatze eta, azkenik, gizakiak onartu eta preziatu zuen.

Denetik (XVII)

Maizpide
euskaltegia

Zentratu?

Ez ote dugu maizegi erabiltzen goian agertzen den aditza? Bada, bai, gehiegitxo aukeran! Ez dugu esango beti gaizki dagoenik (ardatza zentratu, irudia zentratu... esan behar dugu), baina gehienetan, tamalez, horrelakoak entzuten ditugu kalean:

- ✗ Xabi Alonsok ederki zentratu zuen baloia. (oker)
 - ✗ Koadro hori ez dago borman behar bezala zentratuta. (oker)
 - ✗ Unax Ugaldek neskatila guztien begiradak "zentratu" zituen pelikula horretan. (oker)
 - ✗ Drogarekin arazoak izan ondoren, ikasketetan zentratu zen bizilagunaren semea. (oker)
 - ✗ Hi, Jokin, ez ibili adarretatik eta zentratu badi! (oker)
 - ✗ Juanjoren eta Patxiren arteko eztabaida datorren legealdian zentratuko da. (oker)
- Horien ordeztu beste hauek erabiliko ditugu:
- ✓ Xabi Alonsok ederki erdiratu zuen baloia. (zuzen)
 - ✓ Koadro hori ez dago bormaren erdian behar bezala jarritza. (zuzen)

Ebaluazio jarraiaren aldekoa izan arren, ez diot uko egingo Joxemielek jarriko digun azterketari, beti ere ikastetxeak huts larritzat jo ez dezan!



Lolik "estudiante tunante"tik ez duela ezertxo ere, alajaina! Bere ikasketetan buru-belarri!

- ✓ Unax Ugaldek neskatila guztien begiradak bereganatu zituen pelikula horretan. (zuzen)
- ✓ Drogarekin arazoak izan ondoren, arreta osoa ikasketetan jarri zuen bizilagunaren semeak. (zuzen)
- ✓ Hi, Jokin, ez ibili adarretatik eta jo ezak barira! (zuzen)
- ✓ Juanjoren eta Patxiren arteko eztabaida datorren legealdiari buruzkoa izango da. (zuzen)
- ✓ Juanjoren eta Patxiren arteko eztabaidagaia datorren legealdia izango da. (zuzen)
- ✓ Juanjoren eta Patxiren arteko eztabaidak datorren legealdia izango du mintzagai. (zuzen)

Zer "ulertuko dela"?

Ez dira gutxi gaztelaniaren eraginez sortzen ditugun forma bitxiak. Ikusi bestela:

- ✗ Hilaren 7a igandean egokitzen bada, ordainketa astelehenetan egingo dela ulertuko da. (oker)
 - ✗ Alkoboletan kontrolean agindutakoari uko egitea huts larria dela ulertuko da. (oker)
- Jesus, Maria eta Jose! Honela esan besterik ez genuen:
- ✓ Hilaren 7a igandean egokitzen bada, horrek esan nahi du ordainketa astelehenetan egin behar dela. (zuzen)
 - ✓ Alkoboletan kontrolean agindutakoari uko egitea huts larritzat joko da. (zuzen)

... eta nor "ukatuko dela"?

Goian esandakoak berdin balio du atal honetan ere!

- ✗ Marta del Castilloren biltzaileak deklaratzera ukatu dira. (oker)
- ✓ Marta del Castilloren biltzaileek uko egin diote deklaratzeari. (zuzen)


Zuzendu, behar izanez gero...

1. Zentratzen ez bahaiz, ikasgai guztietan "ez gai" aterako dun!
2. Josef Fritzl austriarrak uko egin zion joan den astean epailearen aurrean deklaratzeari.
3. Zuen ikasleek ez omen dute behar bezala zentratzen; hartara, ezin golik sartu!
4. Aizu, Maria, aurrerantzean huts larritzat joko omen dute segurtasun-uhalik ez eramatea eta autoan, gidatzen ari garela, telefonoz hitz egitea!

OHARRA: : lehenengoan, **arreta osoa ikasketetan jaritzen ez badun...** behar du; bigarrenak zuzena da; hirugarrenengoan, **...behar bezala erdiratzen**; laugarrena zuzena da!



kutxa



ERLEZAIN EGUNA ZEGAMAN 2009ko apirilak 5 igandea

XI. Gipuzkoako Ezti Lehiaketa
Gozogile produktuen erakusketa
Ezti dastatze gidatua
Durrunba
Erlezainei oménaldia
Gozoki eta eztien dastatzea
Artisautza
Produktu ekologikoak
Bazkaría
Bertso jaialdia



Goierritarra + GOIERRIKO hitza info Abantailaz betetako elkarlana

Harpidedunen abantailak:

Egunero Hitza eta hamabostero Goierritarra etxean jasoko dituzu.

Zorion-agurretan deskontuak.

Zozketetan parte hartzeko aukera.

Harpidetza txartela

Urteko kuotak:

- ☐ **Goierri** 27 euro Egin ☒ bat aukeratutako kaxan ☐ **GOIERRIKO hitza** 67 euro
- ☐ **Goierri** + **GOIERRIKO hitza** 72 euro

Izen-abizenak:.....
Helbidea:.....
Herria:.....
Telefono zenbakiak:.....
NAN:.....
Kontu zenbakia(20 digitu):.....

Bidali txartel hau helbide honetara:
Goierritarra, Uribalde plaza 7 behea, Beasain

Harpidedunen arreta zenbakia: **902 82 02 01**

Nazio Batuen babestutako Programa honen laugarren edizioa abian dago

GAP izeneko programak

Goierriko familiak aurrezten eta ingurumena zaintzen laguntzen du

Ur eta energiaren kontsumoan aurrezte, garraioa eta etxeko hondakinak erazentzuzkoan erabiltzea GAP, *Global Action Plan*, Ingurumen Programaren helburuak dira. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak, Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sareak (Udalsarea

21) eta GOIEKI (Goierriko Garapen Agentzia) programa honen laugarren edizioa martxan jartzen dute, Nazio Batuen babestuta. Ohikoak diren eginkizunetan eguneroko jokabideak hobetzera euskal familiak laguntzea eta animatzea GAP programaren helburuak dira.

Laugarren edizio honek 88 udalerri gehitu dira, horien artean goierriko 18 udalerriak daudelarik. Guztira, 170.000 familia inguru gonbidatuta daude GAP programaren laugarren edizioan parte hartzea.

Guztiak Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarea, Udalsarea 21eko, kideak dira eta hiritarrak sentibilizatzea eta parte-hartzea bultzatzen dituzte Tokiko Agenda 21 prozesuaren barruan.

Orain arte, GAP programaren pasa den hiru edizioetan 91 udalerri 22.000 familia baino gehiago parte hartu dute eta etxean sortutako hondakin 350 tona murriztu egin dira, 65 litro ur gutxiago kontsumitza lortu da eta 5.000 tona CO₂ isurtzea saihestu da.

Nola parte hartu?

Parte hartu nahi duten familiak gaurtik aurrera programa interneten bidez egiteko www.udalsarea21.net edo www.goierri.org web orrialdeetan inskripzioa egin dezakete, paper eta energiaren kontsumoa murriztuz, edo programa paperen bidez burutu. Horretarako laster etxera iritsiko zaie liburuxkarekin erantsita dagoen kupoia igorri beharko dute.

Hiru hilabete bitartean ur erabilerari, energiari, garraioari, etxeko hondakin kudeaketari eta erosketaren ohiturari buruzko lau gidaliburu jasoko dituzte. Bertan aholku praktikoak inguru-

mena nola zaintzeko ere izango dituzte. Programak lau galdeketa dauka, aurre-rapenak ebaluatzen eta etxe baikoitzaren emaitzak jakiteko.

Erakunde lokalen laguntza funtzeskoa izaten ari da familien parte hartzea gehitzeko. Denak euren hiritarrak ekimen honetan sar daitezela ekimenak garatzen ari dira. Azken finean, "Ahalegin handiak ez dira eskatuta, baizik eta keinu txikiak". Programan internet bidez izena emateko epea apirilaren 5 izango da.

Ekimena Eusko Jaurlaritzako Garapen Iraunkorren Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020 ekimenen barruan sartzen da. Estrategia honek Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren ingurugiroerako konpromisua lortu nahi du.

GAP Programa amaitu eta gero, udalerri bakoitzak parte hartze ehunekoak eta udalerriko parte hartu duten etxei esker lortutako ingurugiro hobekuntza emaitzak eta familia bakoitzaren konpromiso pertsonala jakin ahal izango du.

Horrez gain, programa bukatuko duten familia guztiek Etxe Ekologikoaren ziurtagiria lortuko dute eta opariaren zozketa batean parte izango dute: bizikletak, asteburuak landa-etxeetan, Karpin Abenturarako eta Madariaga Dorretxea Euskadiko Biodibertsitatearen Zentrorako.

Goieki

Garraioa

- ✗ Autoaren gurgipen presioa neurri egokian eduki.
- ✗ Bi minutuz baino gehiago geldirik bazaude itzali autoaren motorra.

Erosketak eta etxeko hondakin kudeaketa

- ✗ Eraman etxetik zure poltsa. Etxean plastikozko poltsak pilatzen badira erabili zakar poltsa bezala.
- ✗ Saia zaitez frutak eta barazkiak aleka erosten, ez erosi paketatutako produktu galkorrak.
- ✗ Kontsumitu tokian tokiko eta saioan sasoiko produktuak. Ahal baduzu jo ezazu zuzenean ekoizleena eta produktu ekologikoko kooperatibetara.
- ✗ Saikatu hondakinak etxean bertan.

Energia

- ✗ Aparatuak etengailutik deskonektatu kontsumo fantasma eragozteko.
- ✗ Etxetresna berriak erostera kontsumoari buruzko saikapena ikus ezazu.
- ✗ Erregula ezazu ur beroaren tenperatura 40°Ctik gorakoa bada ur hotzarekin nahastu beharra egoten da.
- ✗ Berokuntza sistema banakakoa bada jar ezazu termostato bat; logelak eta bainugela 18°C, egongela 21°C. Igotzen den gradu bakoitzeko energiaren kontsumoa %7a igotzen da.
- ✗ Hamar minutu aski da gela bat ondo aireztatzeko.
- ✗ Beharrezkoa ez bada ez ireki labearen atea lortu duzun beroaren %20 galduko duzu.
- ✗ Garbigailua erabat beteta dagoenean erabili.

Ura

- ✗ Ura aurrezteko tresnak jarri txorrotetan, ur tanga (cisterna) barruan urez betetako botila bat jarri ezazu.
- ✗ Garbiketa programa laburrak erabili, garbitzean beharrezkoa den garbigarri kopurua soilik erabili.


Ongi etorri Korrika

*Apirilaren 2an iritsiko da Korrika !6 Goierriira,
goizeko 4,30etan, Lizarrustitik barrena*



B adator Korrika, hemen da Korrika! Apirilaren 2an, goizaldeko lehenengo orduetan, Lizarrustitik iritsiko da Korrika Goierriira. Hogei urte baino gehiago pasatu ez den parajeetatik pasatuko da aurten gainera Korrika, Ataundik alegia, ataundarren eskariari erantzuz.

nez. Girotze aldera, egunotan ekitaldi ugari izango da Goierriko herri ezberdinetan, tartean, ostiralean, eskualdeko afaria, Beasainen. Euskararen herrira etorri eta euskarara hurbildu direnei ongi etorria egin nahi diete aurten Korrika 16-k. Ongi etorri guztioi!



MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94

Kale Nagusia, 19 ORDIZIA



aulia
TOLARE
SAGARDOTEGIA

☎ 943 80 60 66

Aulia-enea
LEGORRETA

xetai

nafarroa etorbidea 1
beasain gipuzkoa
www.xetai.net





Apirilaren 2an Korrika Goierrin, ibilbidea eta ordutegia:

Ataun (Lizarrusti gaina)	04:35
San Gregorio	05:37
San Martin	05:50
Lazkao	06:09
Olaberria	06:55
Idiazabal	07:20
Segura	07:40
Zerain	07:59
Mutiloa	08:12
Ormaiztegi	08:38
Beasain	09:04
Ordizia	09:36
Arama	10:02
Itsasondo	10:09
Legorreta	10:22

Korrika Kulturala herriz herri

ARAMA:

Aurten, lehenengo aldiz pasako da Korrika Aramako erdi-gunetik. Aurreko 15 edizioetan gehienetan Aramako lur-eremutik errepidean barna pasa izan da. Aurten aldiz Korrikako lekukoak Aramako erdigunea gurutzatuko du.

Martxoak 27, ostirala:

18:00etan: Korrikaren DVD-a izango da ikusgai Aramako Kultur Etxean.

Ondoren, Arrikutz elkartean talojana izango da herriko haur eta gaztetxoentzat. Pertsonako 3 euro kobratuko da.

Martxoak 28, larunbata:

Korrikaren aldeko Herri Bazkaria. Menua: babarrunak, odolkoa, baserriko oilaskoa eta mamia (25 euro). Bazkaria Jon eta Antxon abeslariak eta Aitor Furundarenak alaituko dute.

Apirilak 2, osteguna:

10:00ak aldera Korrika Aramatik igaroko da.

17:30ean: Korrika Txikia Aramako plazatik abiatuko da eta Itsasondo izango du jomuga.

Ondoren Itsasondoko plazan jolasak eta merienda izango dira.



Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxe: 943 888 901
Senpere Industrialdea LAZKAO

Olagi Urte guztian zabalik
Eguneroko menua
Karta
Sagardotegiko menua
Sagardotegia Jatetxea
© 943 88 77 26 ALTZAGA



ATAUN:

Martxoak 28, larunbata:

22:00etan: Bertso ekitaldi berezia Hamika Bertutekoen eskutik, Herri Antzokian. Sarrera: 5 euro. Txartelak aurrez salgai: Ataunen ohiko lekuetan, Lazkaon Gerriko liburutegian, Ordizian, Goiztiri AEK euskaltegian, Beasinen Arrano eta Basakana tabernetan.

BEASAIN:

Martxoak 27, ostirala:

20:30ean: Eskualdeko afari txapelketa: udaletxe azpiko arkupean, lehiaketa 19etan, afaria 20:30ean. Lehiaketan parte hartuko duten Goierriko elkarte gastronomikoei prestatuko dute janaria: arrain zopa; biribilkia (redondo) saltsan. Afaria girotzen, Aitor Furundarena arituko da.

ITSASONDO:

Apirilak 2, osteguna:

10:00ak inguruan: Korrika Itsasondora iritsiko da.
17:30ean: Korrika Txikia Aramatik abiatu eta Itsasondo zeharkatuko du Ondoren haurrentzat jolasak eta merienda plazan.
19:30ean: Korrikaren DVD-a ikusgai udaletxeko pleno aretoan.

Apirilak 3, ostirala:

19:00etan: Bertso-triki-poteoa plazan hasi eta herrian zehar.
21:00etan: Bertso-triki-afaria Arbel-aitz elkartearen. Menua: sarrerakoak, sukalkia, postrea, kafea eta edariak. Txartelak apirilaren 1era arte salgai daude Kaxintanen eta Lurdesen dendan, 25 euroan.

ORMAIZTEGI:

Martxoak 28, larunbata: Korrika Txiki:

Umeen jokoak, txokolate jana, dokumentala, arropa salgai.

LEGORRETA:

Martxoak 27, ostirala:

23:00etan: Korrikaren aldeko musa, Aldapa Haundin.

Martxoak 28, larunbata:

18:00etan: Korrikako dokumental emanaldia, Herri Zine-man.

Ondoren, trikipoteoa eta bertso afaria.

LAZKAO:

Apirilak 1, asteazkena:

16:30ean: Haurrentzat jolasak eta Korrika Txikia Maizpide Euskaltegiko ikasleak arduradun direla. Plazan.

ORDIZIA:

Martxoak 28, larunbata: 'Korrika girotze eguna':

12:00ean: Patata-tortilla lehiaketa Enparantza Nagusian. Futbolinak eta girotzeko musika izango da bertan, Korrika materiala salgai ere egongo da.
14:30ean: Korrika bazkaria Enparantza Nagusian Burrunbazaleak taldeak alaituta.
16:30ean: buruhandiak, umeentzako jokoak... OGA-ren eskutik.
18:00etan: 'La Tirili' taldearen eskutik "Gertakizuna" kale animazioa herri-gunean (Ordiziako Udalak lagunduta)

Martxoak 31, asteartea:

19:00etan: Film laburren emanaldia DBH-ko ikasleentzat.



OLABERRIA:

Martxoak 28, larunbata:

21:00etan: Arkupe elkartearen elkartuko dira herritarak, poteo herrikoia egiteko.
21:30ean: Kantu afaria.

SEGURA:

Apirilak 1, asteazkena:

Korrika bezpera (korrika txikia, bertsolariak, trikitilariak, tortilla lehiaketa, herriko abesbatza).

ZEGAMA:

Apirilak 1, asteazkena:

11:30ean: Korrika Txikia ospatuko dute. Aurrez petoak margotuko dituzte. Ibilbidea: Eskola - Manolo, 6. maila; Manolo - Botika, 5. maila; Botika- Igerilekua, 4. maila; Igerileku-Amezti, 3. maila; Amezti - Herreria, 2. maila; Herreria- Andraitz, 1. maila; Andraitz- Frontoia, 4-5 urte; Frontoia - Sarrera nagusia, 3 urte; sarrera nagusia - Patioa: 2 urte.

Ongi etorri euskaraz bizi nahi dugunon herrira

Euskal Herrira heldu, euskara ikasi eta erabili, umeei irakatsi, gure kulturaz gozatu, berari ekarpen euskalduna egin, eta belaunaldiz belaunaldi gure hizkuntza transmititu duten milaka familia horiek izan nahi ditu gogoan Korrika 16k aurtengo omenaldia gauzatzeko. Hemen Goierriko hiru adibide desberdin.

Karmele Santoyo: “Gurasoei eskerrak ematen dizkiet, Palentziatik Lazkaora etorri eta Ikastolara eraman nindutelako”

Karmele Santoyo lazkaotarrak, neurri handi batean, gurasoei zor die euskaraz jakitea. Gurasoak Palentziatik etorri ziren Lazkaora bizitzera eta garai hartan, bere gurasoek, seme-alabak, Ikastolara eraman zituzten, klandestinatateko eskolara. “Nik beti eskerrak ematen dizkiet erabaki hura hartu zutelako. Gure aita 1952 inguruan etorri zen Euskal Herrira, 16 urte zituela. Aldez aurretik bazeukan Euskal Herriaren berri. Ofizioa hemen ikasi zuen. Ama eta biak etorri ziren gero Euskal Herrira eta bertan ezkondu ziren. Villamediana herri txikikoak dira gurasoak. Anaia eta biok hemen jaioakoak gara. Euskal Herrian jubilatuta zirene eta orain urte erdia Euskal Herrian eta urte erdia Castillan egiten dute. Lotura ez dugu galdu. Gu “al pueblo” joaten gara oraindik. Beraiek erabaki zuten beraien seme-alabak euskalduntzea. Garai hartan oso zaila zen, baina Lazkaon apustu fuertea egin zen, Ikastola sortu zen eta han ikasi genuen. Kanpotik etorri eta Ikastolan sartzea... horregatik, behin eta berriz eskerrak asko ematen diet gurasoei. Ni euskaldunberria naiz baina inkonszientea. Nik bi urte neuzkala hasi nintzen Ikastolan. Nire kintan, koadrilan, abizen erdaldunak dauzkadan bakarra naiz”, adierazi digu. “Ni orain naiz konsziente, garai hartan ez nintzen konsziente. Pentsatzen dut, nire inguruko guztiak euskaldunak izango zirela, ni izan ezik. Baina eskolan haiekin ibiltzen nintzen, kalean ere bai, auzoa ere euskalduna neukan... Etxeko atea itxi eta euskara nuen nire hizkuntza. Frankismo garaian alderantziz izango zen etxe askotan. Hau da, euskara etxeko hizkuntza zen eta atez kanpora, erdara. Gure kasua alderantzizkoa izan zen”, gaineratu du.

Euskaldunberriaren kontzeptuaz, EGAko azterketan ja-



betu omen zen. “EGA egitera joan ginen eta abizenak sailkatu gintuzten. Epaimahaiaren aurrera joan nintzenean, euskaldunberria ala euskaldun zaharra nintzen galdetu zidaten. Nik zer esan ez nekiela gelditu nintzen. Ikastolatik nentorrela esan nien. Oso gaizki sentitu nintzen. Pasillora atera eta lagunei esan nien: beltza txurien artean bezala sentitu naiz. Oso gaizki sentitu nintzen, negar ere egin nuen. Ordura arte, ni ez nintzen konsziente. Inoiz, inork ez nau erdaldun bezala tratatu”.

Gaur egun abizenak ez dira euskaldun izatearen erakusle. “Eskerrak. Nik zortziak erdaldunak dauzkat eta ez naiz lotsatzen. Zer sentitzen den da kontua eta ni euskalduna sentitzen naiz”.

Azken 20 urteetan, AEK-ko irakaslea da Karmele Santoyo. “Joko bat zena, nire lanbide bihurtu da”, dio. Dena den, garbi dauka euskaldunberrien adinako lana dugula euskaldun zaharrok: “Euskara ezin dugu euskaldunberriengain utzi, hori zama handiegia da. Beraiek ikasi behar dute, baina euskaldunak egin behar duena da, altxor hori banatu. Lagundu egin behar dugu”.



Veronica Muñoz, Extremaduratik etorri eta euskara ikasten ari da

Duela hiru urte bizitza goitik behera aldatu zitzaion Veronica Muñoz, mai-tasuna dela arrazoi. “Ni lasai-lasai nengoen Extremaduran, gurasoekin. Nire mutil-lagunaren gurasoak Extremadurakoak dira baina bera euskalduna da. Hemen jaiotakoa da eta euskaraz daki. Nik magisteritzako ikasketak bukatu eta lanik ez nuenez, Euskal Herrira etorri nintzen”.

Etorri eta berehala izena eman zuen izena AEK-n. “Hasieran gaizki pasatu nuen, ez nekien hitzik ere euskaraz. Hasieran beharragatik hasi nintzen euskara ikasten, baina gero poliki-poliki euskara gustatu zait, eta euskaraz bizitzea gustatzen zait”.

Dagoeneko euskaraz ulertzen du eta hitz egin ere bai. “Hiru urte darmaizkit baina lanean nabilenez, astean

hiru egunetan bakarrik joan naiteke euskaltegira. Altsasun lan egiten dut eta han ere ez daukat euskal girorik. Euskaraz bizi nahi dut eta ez daukat aukerarik. Hori bai, etxean eta lagunartean bai”. Argi dauka, seme-alabei euskaraz hitz egin nahi diela. “Etxean euskaraz bizi nahi dut”.

Barnetegira joateko asmoa dauka Veronicak, “gehiago hitz egiteko. Txipa aldatzea asko kostatzen zait”.

Dena den, harritu egiten da, dakitenek ez dutelako euskararik erabiltzen. “Pena ematen dit. Gazte askok erdaraz hitz egiten du. Euskaraz jakin eta kalean erdaraz? Esaldi hori hor dago, hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek erabiltzen ez dutelako baizik. Pena da, hemen bizitzeko, jendeak ez duela euskararik behar. Baina hizkuntza ofiziala da eta ikasi egin behar da”.

Euskal Herriaz eta euskarari buruz zeukan irudia goitik behera aldatu zaio Veronicari. “Euskaldunak ezberdinak zarete, baina ez da guk daukagun irudia. Irudi txarra geneukan. Euskara eta politika dena nahastuta ikusten da. Eta ez da horrela, errealtatea beste bat da. Nire asmoa da, nire familiari edo inguruneari hemengo berri ematea: ez dela txarra. Nire gurasoak etorri ziren eta oso ondo, gustura egon ziren, ez dago arazorik”.

Aurten ez du Korrika egingo, lanak ez diolako uzten.

Txomin Cid: “San Gregorion bizita beharko euskara ikasi”

Duela 40 bat urte etorri zen Domingo Cid, Orensetik Ordiziara. 19 bat urte zituen. Lan bila etorri zen. Bakarrik etorri zen eta anaiarekin topo egin zuen Ordizian, ezer jakin gabe. Denbora gutxira, anaia, istripuz hil zen. Ondo konpondu zen lehenengotik. “Ondo konpondu beharra badago, bestela badakizu”, dio. Galizian, galegoz hitz egiten zuen, bere herrian besterik ez zen hitz egiten eta. “Hirian bai, gazteleraz egiten zen”.

Pepi Aizpurua ataundarrarekin ezkondu eta Ataunen, San Gregorion, jarri ziren bizitzen. Domingo zena, lagunartean behintzat, Txomin da. Ilobarekin lehenengo eta seme-alabekin gero, euskaraz ikasi du Txominek. Seme-alabekin beti euskaraz hitz egin du. “San Gregorion beharko euskara ikasi. Denek euskaraz hitz egiten dute. Eta nik, ondo ala gaizki, baina beti euskaraz. Nire erara, noski”, azpimarratu du Txominek.

Euskara ikastera ez da sekula euskaltegira joan, naturalki ikasitakoa da. “Mari Karmen plazan aritzen zen baina



ni ez nintzen joaten, paperekin gaizki moldatu izan naiz eta beti”.

Euskaraz irakurtzen ere moldatzen da, letra handiak irakurtzen omen ditu euskaraz.



Garai hobeen zain

Automobil sektorea %28a jaitsi da Goierriin

Krisiak gogor eragin du autogintza sektorean. Goierri ez da salbuespena. Manuel Etxarri, Autowageko gerenteak emandako datuen arabera, eskualdean, %28ean jaitsi da autoen salmenta. “Krisiaren eragina 2008ko urtearen bigarren erditik ari gara nabaritzen. 2008aren lehenengo sei hilekoan, marka guztiak hausten ari ginen. Gero etorri zen jaitsiera, batez ere irailetik aurrera. Beraz, batzuek beste, urtea itxuran bukatu genuen.

Baina aurtengo urte hasiera bide berdinetik doa, oso gaizki. Eskualdean, %28ean jaitsi da autoen salmenta. Guk, %35 jaitsi ditugu salmentak; marka batzuk %70ean jaisten ari dira. Ur-tarrilan, lau auto markak, ez dute auto bakar bat bera ere saldu. Historikoki, hori ez zen inoiz gertatuko”, dio Manuel Etxarrik.

Lazkao Garajeko Lurdes Garmendiak ere, datu baimokorrak eman dizkigu: “iazko urtean, ekainetik

abendura erabat geldituta egon zen kotxeen salmenta. Abendutik aurrera, gu oso ondo gabilta. Tailerrean ere ez dugu nabaritu. Ekainetik abendura, jendea galdetzeraz ere ez zen sartzen. Orain sartzen direnak, erostera datoz, behar dutelako datoz. Lehen prezioak galdetzeraz etortzen zen, igual kotxea aldatuko zutela... hori aldatu da. Aurreko bi urteak berriz, gehiegizkoa ere izan da, hura ere ez zen normala. Zenbakiak beraz, asko aldatu dira baina azken bi urteetakoa normala ere ez zen”.

Arandia garajekoek ere hala esan digute, jaitsiera

nabaritu dutela, baina ekaitzari eusteko moduan direla momentuz behintzat.

Finantza arazoa

Banketxeek mailegurik ez emateak eragina dutela diote. “Goierriin, ziurrenik, munduko jenderik kontserbadoreena egongo da. Goierriko jendeak, Tolosaldekoarekin ez dauka zerikusirik. Tolosaldeko herritarrek, zapatak ere finantzatu egiten dituzte. Hemen, gaztea jendea ez, baina 40 urtetik gorakoek, dirurik ez badaukate ez dute ezertxo ere erosten. Eta krisiaren zurrumurruak badaude, atzera egiten dute. Tolosal-

Autowag



Audi



☎ 943 888 254

☎ 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN

ARANDIA

G a r a j e a
AUTOEN KONPONKETA



LADA



SSANGYONG

N-1, z/g Iurre Auzoa **OLABERRIA**

☎ 943 88 09 47

dean, banketxeak maileguak ematen hasten diren unean, autoak saltzen hasiko dira. Goierrin, prentsan, krisia gainditu dela eta errekupe ratzen hasi garela diotnean, orduan hasiko da jendea kontsumitzen. Hori bai, gazteak aldatzen ari dira. Tolosatik hona alde handia dago”, adierazi du Etxarrik.

Garmendiaren esanetan, “lehen kotxea erosten zen, etxea erosteko eskatutako maileguarekin. Etxea erosteko hipoteka eskatzen zutenean, 2-3 milioi gehiago eskatzen zuten kotxea erosteko, interes bajuagoko mailegua izaten baita. Etxerako eskatzen ez denez, kotxerako ere ez. Maileguak oso erraz ematen aritu dira. Askotan beldurtuta gelditzen nintzen ni. Eta orain pasatu dena pasatu. Eta orain eman diezaieketenei

ere ezin diete ematen”.

Manuel Etxarrik badu beste kezka bat: “min handia egingo digu, Nafarroan, esaten dutena egiten badute, asko kaltetuko da sektorea: alegia, Prever Plan bat, 2.000-2.500 eurokoa. Ingaruko guztiak hara joango dira autoa erostea. Haiek egiten badute eta guk ez...”

Psikologikoa gehiago

Egoera gogortzearen arrazoia, komunikabideek mezu ezkorak zabaltzea izan dela diote. “Mezu guztiak ezkorak izan dira. Goierrin krisia gehiago da psikologikoa, erreal baina. Goierrin, teoriar, ez dago krisia egoteko arrazoirik. Eskualdeko motorra CAF da eta lau urterako lana bermatuta dauka eta aurrerako perspektiba onekin, eta CAFeko jendeak ez du gatatzen.



Manuel Etxarri, Autowageko gerentea.

Gordetzen ari da, badaezpada ere”, dio Etxarrik. “Duela 15-20 urte, gaur egun baino zaharragoak ziren autoak. Autoa aldatzeko behar gehiago zegoen.

Gaur egun, 4-5 urteko kotxeak, kapritxoak aldatzen dira eta momentu honetan planteatu ere ez da egiten autoa erostea. Beraz, Goierriko auto parkea nahiko

**Exkursioak
Ezkontzak
Kirol taldeak
Lantegiak
Ikastolak
Sagardotegiak**

Goierrialdea
autobusak
www.goierrialdea.com

**Tel.: 943 885969
Fax.: 943 804049
info@goierrialdea.com
Gudugarreta auzoa
BEASAIN**



gaztea da, eta ia inork ez du autoa aldatzeko beharrik. Orduan, jendea, eusten ari da. Jendea, galdetzeraz ere ez da etortzen”, gaineratu du Autowagekoak.

“Hainbesteko kontuak entzunda, beldurra ematen du. Baina momentuz behintzat, hemen ez da nabaritzen. Jendea itxoiten ari da. Zerbait nabaritu da. Lehen, 300.000 kilometroko kotxe batek averiaren bat baldin bazuen, ez zen konponduko eta berria erosiko zuen. Baina orain, konpontzeko eskatzen da. Orain gehiago pentsatzen du jendeak. Lehen erraztasun gehiagorekin hartzen zen berria erosteko erabakia. Hori aldatu egin da. Lehen, garai bateko egoera datorrela uste dut”, azpimarratu du Lazkao Garajekoak.

Dena den, autoa eroste-

ko momentu ona dela diote auto saltzaileek, sustapen onak egiten ari baitira. “Promozio gehiago daukate. Stockeko kotxe asko daude eta saldu egin nahi dira. Promozio handiak jarri zaizkie, diru asko gelditu zegoelako. Gu adibidez, stockik gabe gelditu gara”, dio Garmendiak.

Itxaropentsu

Ekonomiaren beherako “koxka” hau laster pasatuko delakoan daude. Itxaropentsu daude auto saltzaileak. “Nik ez dut uste, egoerak orain bezala jarraituko duenik. Sistema hau kontsumoan oinarritzen da eta kontsumorik ez baldin badago, dena pikutara doa. Nik uste dut, banketxeak maileguak ematen hasten diren momentuan, arazoa konponduko dela. Baina arazo bat




Lazkao garajeko Ainboa.

dago: banketxeek ez dutela dirurik. Estatu Batuetan, diru asko sartzen ari dira banketxeetan eta horrek eragina izango du”.


Dena den, baikorra da Autowagek Manuel Errasti: abuztutik aurrera egoerak hobera egingo duelakoan

dago. Seinale baikor bat ikusten du gainera: “boltsa, hirugarren astez segidan, igotzen ari da eta hori seinala ona da. Aste hau, klabea da. Historikoki hala izan da. Oso esanguratsua da”.



ETORKIZUN OPAROA DUEN PROIEKTUAN KONFIANTZA





“Erakustaldia eman diegu politikoei eta gizarteari, erakutsiz posible dela amankomunean ditugun puntuetan bat egitea”

ZAHARRA • BERRI

IGELTSERITZA ETA ERAIKUNTZA

A. Almeida
943 180 372
651 700 439
aiakoerrota@terra.es
ATAUN



Eraikuntzak
Gremioen koordinaketa
Erreforma orokorrak
Teilatuak



SILVIA MIRASCASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zka: 649 RPS: 223/07






TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

Duela bost urte,
Herri Kirol taldea
sortu zen
Idiazabalen, Mikel
Garmendia zenaren
lanari esker. Herri
kirola aitzaki bartuta,
autodeterminazio
eskubidearen
aldarrikapena egiten ari
dira
Autodeterminazioaren
Aldeko Idiazabalgo
Herri Ekimenekoak,
bertan nabiz atzerrian.
Iazko Aste Santuan,
Eskozian izan ziren, eta
aurten, Aste Santuan
Kataluniara joango dira
eta uztailan berriz ere,
Eskoziara, bertako
agintariek gonbidatuta.
Angel Oiarbide
taldekideak,
plataformaren
belburuen eta
proiektuen berri eman
digu.

Herri kirolak eta aldarrikapenak bat egiten du Idiazabalen. Nola sortu da ekimena?

Herri kirol taldea izan da kimua. Herri kirol taldea duela 5 urte sortu zen. Herri kirol taldea Idiazabalen, Mikel Garmendia aguazil zenak suspertu zuen. Mikel Garmendiak bere indar guztia jarri zuen herri kirol talde bat sortzeko. Bere indar guztia, eta garrantzitsua goa izan zena, karisma. Mikel Garmendiak sortzen zuen girotik sortu zen herri



Autodeterminazio eskubidearen aldarria

Duela bi urte, Autodeterminazioa eskubidearen aldarrikapenari eustea erabaki zuten Idiazabalen, Angel Oiarbidek, Autodeterminazioaren Aldeko Idiazabalgo Herri Ekimeneko ki-deak gogoratu digunez. “Gaurko egoera politikoak erabat kezkatzen gaituelako, hau da ekimen bat, herritarra, alderdikieretatik kanpo, eskubide bat oinarri hartuta, erakustaldi bat emateko, posible dela amankomunean ditugun gauzetan, puntuetan, bat egitea. Hori da gaur politikoki gertatzen ez dena. Guk metafora bat ibiltzen dugu hasieratik, eta Goier-rin erabat garbi gelditzen da: zu Beasaindik Txindokira bazoaz oinez eta ni Beasaindik Abaltzisketara oinez, gaurko egoeran, zorigaiztoko egoera honetan, ezin ditugu bi pauso elkarrekin eman, nahiz eta norabide berdinean joan. Gure erakustaldia da herrian, azke-neko bideguretzera arte, hau da, Larraitza arte, elkarrekin pausoak ematea. Hori da gure erakustaldia herrian. Gure erakustaldiak atzerrian, gure folklorea, gure izaera dira. Auto-determinazioa herrian bizi dugu, topagune bat bezala, sentsibiltate ezberdinetako jende-aren topagune bezala. Politikan sartu gabe, alderdikieretan sartu gabe”.

kirol taldea. Beti argi izan dugu, taldea, inondik ino-ra ez zela bide politikoeta-tik joango, ez zela alderdi-kerietan eroriko, ideia oso zabaleko jendea baikaude Idiazabalen. Sentsibiltate ezberdinetako jendea ego-nik garbi geneukan, gure

asmoa zela, Idiazabalgo sentsibiltate gehienek bat egiten zuten puntuak indar-tzea. Hori hasiera batetik, naturalki eman zen adibi-dez, Euskal selekzioaren al-darriarekin. Hala ere, beste aldarri bat sartu genuen, bi urtez behin egiten den Ko-

rrika. Lau bat urte, dauka-gun indarra Korrikari lagun-tzeko aprobetxatzea pentsa-tu genuen. Korrika martxo-an izaten da eta Sanblase-tan, kanpainaren hasiera bezala, hala egin genuen eta lortu genuen dirua Ko-rrikarentzat izan zen. Gure



izal

IMAZ eta CONTRERAS

PINTURA eta PAPERGINTZA

943 187 049
943 187 045

Ondramuño
baserria
IDIAZABAL



biok

zerbitzuak

Tel 943 88 44 00
Faxa 943 80 51 27
www.biokzerbitzuak.com
Ordizia Goierri, 12

kudeaketa
fiskala
kontablea
merkatala
laborala


Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 881 944
Ordizia

Oskarbi Oinetakoak
Sekundino Etnakia 8
Tel 943 721 978
Zumarraga

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 884 104
Beasain

Oskarbi Oinetakoak
Erdiko Kallu
Tel 943 711 804
Arrasate

O



jarduna ordura arte, Euskal Herri mailan Xiba txapelketan parte hartzea eta Idiazabalgo eta inguruko festetan parte hartzea zen.

Iaz dena den, beste pauso bat eman zuen taldeak, atzerrira joanez.

Orain dela bi urte, beste egoera batean jarri ginen: herritar bat, Dani Oiarbide, Londresera joan zen euskara irakasle bezala, Londresko unibertsitate batera. Han zegoela, bertako Euskal Etxearekin eta Unibertsitatearekin oso harreman ona izan zuen. Idiazabalgo Herri kirol taldetik, bueltak emanez, pentsatu genuen posible izango litzatekeela, jaialdi bat antolatzea, Londres erdigunean. Proposamena lantzen joan ginen, Londresko udaletxeari Unibertsitateak eskaera egin zion. Baina Londresen ezin go litzateke joan-etorriko zerbait lortu. Gu joango ginateke, ekitaldi bat egingo genuke eta itzuli egingo ginateke. Orduan, Eskoziara joatea bururatu zitzaigun: Eskozian herri kirolak dituzte, Eskoziarekin antzekotasun gehiago dago eta Londres goazenez, Eskoziara ere joan egingo gara. Hortik pausoak aurrera ematen joanda, indar gehiago hartzen joan zen Eskoziako proposamena. Eskozian kontaktuak egin genituen eta ikusi genuen Eskoziakoa askoz ere gehiago interesatzen zitzaigula Londres joatea baino. Eta hala sortu zen Eskoziakoa. Londreskoa baztertu egin genuen.

Zein izan zen Eskoziako bidaiaren helburua?

Bi herrien arteko uztartze bat sortu nahi genuen. Gu hara joan, han kontaktuak egin eta hango jendea hona ekarri. Nahiko erronka zen Idiazabaldik herri kirolatik hara joan eta halako zerbait egitea, baina gure erronka gehiago ere izan zen: Eskozia, European autodeterminazio eskubidea fo-

kalizatuta dagoen lurraldea denez, aprobetxatu nahi genuen gai horrekin guk geure herrian gizarte erakustaldi bat egiteko. Ekintza kultural asko izaten dira udan, dantza taldeak ez dakit nora joaten direla... hori oso ondo dago gure herriaren izaera erakutsi eta buelta. Guk hori baino gehiago egin nahi genuen: atzerrian eta herrian, erakustaldi bat eman nahi genuen, eskubide hori gaitzat hartuta. Idiazabalgo sentsibilitate gehienek bat egiten duten puntuetan bultzada emateko helburu horrekin, dakigunez Idiazabalen herritarren gehienak eskubide horren alde daudela, horregatik heldu genion puntu horri. Autodeterminazioaren Aldeko Idiazabalgo Herri Ekimena plataforma sortu genuen.

Idiazabalen, arrakasta izan du ekimenak. Zerk izan du arrakasta gehiago, herri kirolak ala aldarrikapenak?

Herrian ejenplua eman da eta arrakasta handia izan du. Herri kirolak momentu honetan, proiektu honen barruan, leku handia hartzen du. Baina sortzen ari garen zerbait da, herri ekimen honetan ateak irekita daude denon artean sortu beharreko zerbait delako. Gure helburua proiektu honetan herri kirola zati txiki bat izatea da, eta herriko beste sektore batzuek osatuko luketen zati txiki gehiagorekin. Herri kirol taldea izan zen txispa baina herri ekimena hori baino askoz ere gehiago. Eta norabide horretan goaz.

Hasieran itxura hori zeukan. Aizkora hartzen ez zuenak edo koxkolak biltzen ez zituenak, zaila zeukala herri ekimen honetan sartzea. Pixkanaka-pixkanaka horri buelta ematen ari gara. Orain guk jorratu eta hausnartu behar dugu, zein beste bide jorratu behar ditugun Idiazabalen. Baina



Aste Santuan Kataluniara

Aste Santuan, apirilaren 10tik 13a, Kataluniara joango dira Autodeterminazioaren Aldeko Idiazabalgo Herri Ekimenekoak. Bi autobuskada joango dira, 100 lagunekin gora. Gironako La Bisbal de Emporda-ko 13 kultur taldek eta udalak antolatu dute ekitaldia. “Eskoziari egin dugun berdina egin nahi dugu, joan-etorriko lan hori egitea. Hori Kataluniarekin ere egin nahi dugu, oso gertu dagoen nazio bat delako, harreman handia daukagutako eta harreman horretan zubi lan bat egin nahi dugu, gure xumetasun guztiarekin. Iruñeako joaldunen bitartez egin dugu harremana, aurretik han egonak baitira. Herri dinamikoa da La Bisbal, kultur talde asko daukena, herri mugimendu handikoa”, zehaztu du Angel Oiarbidek.

Aurretik beste saiakera bat egin zuten: “Decidim plataforma sortu da Katalunian, erabakitze eskubidearen alde, Kataluniako mila hautetsik baino gehiagok bat egin dute, oinarri hori hartuta. Hautetsi ezberdinen artean, CIU, ERC, Kataluniako IU eta PSCEkoak ere bai. Beraiekin harremana egiten saiatu gara baina ezin izan dugu, pausoak geldiegi zihoazelako. Orduan, La Bisbalera joan ginen. Dena den, harremana badugu Decidimekin eta beraien hausnarketa jasotzeko beraiekin izango gara”.

Eskoziari egin zuten bezala, “hiriburua batera gure aldarrikapena eramatea ere garrantzitsua ikusten genuen eta Bartzelonan izango gara, igandean Aberri Egunean, bertako Euskal Etxearekin batera. Euskal Herrian ez dakit gertatuko den, baina Katalunian gertatuko da, sentsibilitate ezberdineko herritarrek Aberri Eguna ospatuko dutela Bartzelonan”, gaineratu du.

Iruñeako joaldunak eta dantzariak, herri kirolak, trikitilariak, bertsolariak, txalapartariak, Idiazabalgo talogileak eta Xabier Arakama izango dira ikuskizuna ematera joango direnak. “Xabier Arakamak eta Trikitziok ospe handia dute Katalunian eta kontzertua eskainiko dute bertan”.

La Bisbaleko udal instalazioetan egongo dira, egunero kultur taldeek prestatutako otorduak emango dizkiete, bertako Udalak harrera ofiziala egingo diete.



“Eskozian autodeterminazio eskubidea ez da zalantzan jartzen”

2008ko Aste Santuan, 100 lagun joan zineten. Zer egin zenuten Eskozian?

Edinburgora joan ginen lehenengo: kalejira bat eta Edinburgo erdiguneko plaza batean, erakustaldi bat. Handik Highlands-a. Highlands ingelesez, Goierri da, goiko herriak. Han hemen bezala, tradizioak eta kulturak mantentzen dira. Han egin genuen harremanik handiena. Inverness hiriburuan pare bat erakustaldi egin genituen. Hasiera batean ikusten genuen, horrelako apustua egin behar genuenez, bai herrira begira eta bai atzerrira begira, ikusten genuen herri kirol taldea motz gelditzen zela. Behin atzerrira joanez gero, gure izaera eta herriaren tradizioak isladatu behar genituela. Proiektu honetan, tresna honetan, dantzariak sartu ziren, Beasaingo Aurtzakako eta Ostadarreko dantzariak, txalapartariak, Zador eta Elorri, Iruñeako joaldunak, trikitilariak, bertsolariak... Tresna osatzen joan ginen, 80 laguneko ekitaldi bat osatu arte. Dimentsioa erabat aldatu zen. Ehun pertsona izan ginen Eskozian. Baina erakustaldiez gain, gu ez garelako joan erakustaldiak egitera bakarrik, gure asmoa izan zen, gure herria ezagutarazi eta oinarri autodeterminazio eskubidea hartu genuenez, Eskozian autodeterminazio eskubidea nola bizi den jakitea. Zein sentsibilizazio dagoen nazio horretan eta ze kontzientzia maila dagoen. Parlamentuko alderdi ezberdinakoei elkarrizketak egin genizkien. Bai kontserbadoreei eta bai gobernuan dauden abertzale independentistei. Kaletarrekin ere egon ginen, Eskubide hori nola bizi duten jaso nahi izan genuen.

Eta nola bizi dute, oso barneratuta al daukate?

Hango egoerak ez dauka zerikusirik hemengo egoerarekin. Han autodeterminazio eskubidea ez da dudatan jartzen. Han kontserbadore batek esaten du, eskoziarrek noski daukatela erabakitze eskubidea, baina beraientzat egokiena dela, Eskozia Erresuma Batuen barruen egotea. Baina inork ez du zalantzan jartzen, Eskoziak bere izaera duela eta horrek dakarrela erabakitze eskubidea izatea. Adibide bezala, selekzioetan islatzen da. Futbol eta errugbi selekzioekin islatzen da gaur egun izaera nazionala. Hori inork ez du zalantzan jartzen. Inork ez lukete jokatu ingeles selekzio batean. Han ingeles batek, eskoziar bat ez du ingelesetzat. Ingelesak ingelesak dira eskoziarrak eskoziarrak dira. Eskoziar unionista bat, ez da eskoziar ingelesa. Eskozesa da eta horrekin batera, Erresuma Bateko partaide. Oso eskema ezberdinak dira eta hori hona ekarrita, eskema asko hausnartu ditu. Hango adibideek, hemen beste eremu batzuk irekitzen ditu eta hori da gure asmoa. Hango errealitatea hemengoarekin kontrastatu. Beste salto bat eginda, berdina egin nahi da Kataluniarekin.

atzerrira begira, herri ekimenak sortu duen jaiadi mota bat, tresna bat da hau. **Aste Santuan Kataluniara zoazte, udan berriz ere Eskoziara. Aurrera begira zein asmo edo proiektu ditu taldeak?**

Hurrengo pausoak nora doazen? Proiektu honek fase ezberdinak ditu. Fase bat, iazko urtean hasi zen, Eskoziara joanez. 2009an Kataluniara joango gara, Europako beste nazio bateara eta udan Eskozian, bereziki gonbidatu gaituztelako. 2010ean, lehenengo fase hori itxiko dugu, eskoziarrek eta katalanak Idiazabala ekarriz. Baina fase hau ez da, herrien uztarketa bakarrik, hemen sortu dugun indar guztia, erakustaldi guzti hori, eta gaitasun guzti hori jaso egin nahi dugu. Eskoziako elkarrizketa guztiak, dokumentu guzti hori, jaso eta horrekin zerbait egin nahi dugu, lehenengo fasea bukatzen denean.

Beste erakustaldi bat eman nahi dugu: Euskal Herrian askotan zain gaudela, alderdi politikoak pausoak noiz ematen hasiko diren, gu atzetik joateko. Eskema asko puskatzen ari



gara. Herri Ekimenaren aldarria daraman kamiseta eta sudadera, jende guztia ikusiko diozu. Idiazabalen ez du beste kamiseta batek halako arrakastarik eduki. Hori da gure erakustaldia. Ez goaz Euskal Herriko beste herrietara gauzak nola egiten diren erakustera baina gustatuko litzaiguke, argi izpi honek beste herrietan islada hartzea. Idiazabalen gertatu dena, gertatzen ari dena eta gertatuko dena, Euskal Herriko 30-40 herri-tan gertatuko balitz, hau da herritarrok hartuko bagenuke batuta, alderdikerietatik kanpo, autodeterminazioa oinarri hartuta, beste eszenatoki batean egongo ginateke. Herritarrak bagoaz, herritarrak norabide horretan baldin bagoaz, politikoa etorri beharrean izango dira. Posible da herritarrok politikoak bideratzea, garai batean intsumiso mugimenduak egin zuen bezala. Eta ikusi den bezala, alderdi politiko guztiak atzetik jarri zituen. Lortu beharrean gaude, herri honetan asko dagoelako jokoan. Lortu beharrean gaude alderdi politikoetatik kanpoko guneak, gune herritarrak, sortzea.

Autodeterminazio eskubidearen aldeko Idiazabalgo herri ekimenak ikasi duenetik, zer dauka erakusteko?

Autodeterminazio eskubidea ez dugu hartzen politika egiteko modu bat bezala. Eskubide bat bezala ikusten dugu. Eskubide bat aldarrikatzeko modu bat da. Eskozian hori garbi ikusten da: eskubideen alde egitea ez da politika egitea, politika gero egiten da. Hori topagune bat da eta hortik aurrera egiten da politika: batzuk esango dute independentzia, besteek Erresumaren Batuekin lotura gehiago... Eskoziar batek esaten duen bezala, autodeterminazio eskubidea garrantzitsuegia da politikoen esku bakarrik uzteko. Horrek gauza asko esan nahi ditu. Gure asmoa, hori ardatz hartuta, alderdi politikoen artean, bata eta besteak borrokarako erabiltzen dute eskubide hori, zurrumbilo horretatik hartu, atera eta beste eremu lasai batera, herritar batera jaistea da. Euskararen adibidea jartzen dugu askotan. Euskara ez dela politizatu behar esaten da, euskara ez dela alderdi

Udan, 'Highlands games'

Aurten, baten partez bi: uztaillean, beste bidaia bat izango duzue Eskoziara.

Beraiek gonbidatu gaituztelako goaz. Uztaillean, bost urtean behin, 'Highlands games'-eko munduko txapelketa jokatzeko da. Beraien herri kirol, gaita, dantza... jaialdi handia izaten da. Eskozian, punta-puntako kultur eta tradizio ikuskizuna izaten da. Izan zen azkeneko ekitaldian, 20.000 ikusle izan ziren. Garrantzia handia dauka, Eskoziako diasporako jendea joaten delako. Australiakoak, Zelandia Berrikoak, Hego Afrikakoak, AEBetakoak, Kanadakoak... Aurten beraien herri kirol, dantza eta musikaz aparte, ikuskizun horretan izango den kanpoko ekitaldi bakarra, gurea izango da.

Ohorea izango da zuentzat.

Bai, izugarria. Pentsa ezazu, Euskal Herriko ordezkariarik ez dela izan eskoziarrentzat hain garrantzitsua den ikuskizun horretan. Hori horrela ikusita, ikaragarritzko ohorea da. Baina hori baino handiagoa da, nola izan den posible, herri ekimen batek lortutakoa denean. Guk askotan esaten dugu, benetako erakusketa ez dugula egiten Eskoziara joaten garenean, edo Aste Santuan Kataluniara joango garenean. Benetako erakusketa, hemen eman dugu. Eta eman dugu ez dantza eginda, edo aizkoran eginda. Erakustaldia eman dugu, erakutsiz politikoei eta gizar-teari, posible dela amankomunean ditugun puntuetan bat egitea. Hori izan da Idiazabalen lortu duguna. Hau dena, pixkanaka-pixkanaka sortzen joan den zerbait izan da, eta oraindik ere sortzen ari garena. Geroz eta definituagoa da.

politikoen arteko borroka-tan sartu behar da. Ados. Herriak hartu behar duela berea bezala eta naturalta-

sun batez. Hori da gure asmoa autodeterminazioarekin, zurrumbilo horretatik ateratzea.



Segura

Martxoak 29: lore azoka, goiz eta arratsalde

Martxoaren 29an, izango da Lore eta landareen Udaberriko azoka Seguran. Bederatzigarren urtea izango du aurten azokak. Aurten gainera, goiz eta arratsalde izango da, 10:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 19:00etara. Jarraian duzue Segurako Udaleko Batzordeak eta herri elkarteek osatu duten egitaraua:

10:00etan: Azokaren irekiera:

- ✓ Kriseilu txistulariak eta herriko trikitilariak.
- ✓ Lore eta landare erakusketa eta salmenta.
- ✓ Eskualdeko artisautza eta produktuak.

10:30etik 19:00etara: Ikuskizuna plaza inguruan: 'Txerto ezberdinak frutarboletan', Josu Osaren eskutik.

16:30etik 19:00etara: Azokaren jarraipena.

Erakusketa

'Objetibotik: Euskal natura argazkitan' erakusketa ikusgai da Ardixarran, apirilaren 19a bitartean.

Segura

Aste Santua

Apirilak 5, Erramu igandea:

10:45ean: Erramu Bedeinkatzea Sorkundetar Komentuan.

11:00etan: Meza Nagusia Sorkundetar Komentuan.

Apirilak 9, Ostegun Santua:

17:00etan: Azken Afariko Meza Parrokian.

18:15ean: Prozesioa.

Apirilak 10, Ostiral Santua:

8:00etan: Gurutz bidea Santa Engrazitik Sorkundetar Komentura.

16:30ean: Jaunaren Nekaldiaren Ospakizuna, Gurutzetik jaitea Parrokian.

18:15ean: Prozesioa.

Apirilak 11, Larunbat Santua:

21:30ean: Meza Santua Sorkundetar Komentuan.

Apirilak 12, Pazko eguna:

11:00etan: Meza Santua Sorkundetar Komentuan.

Pasoen erakusketa:

Aste Santuko pasoen erakusketa Ama Jasokundearen elizan, apirilaren 13tik 18ra, 12:00etatik 13:00etara. (Ordutegi honetatik kanpo turismo bulegoan eskatu: Kale Nagusia, 12, 11:30etik 13:30era eta 15:30etik 17:30era).

GRAFICAS EGUZKI
INPRIMATEGIA

NAFARROA ETOR, 17
Tel 943 88 94 82
Faxa 943 88 60 44
BEASAIN

KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN

PLOTTER LANAK ETA
PLANOEN KOPIAK

☎ 943 02 73 58
Faxa: 943 02 79 39
San Inazio, 5 BEASAIN

zuhaizki
Zurgindegia

Egurrezko lehioak, kontraleihoak, atek eta eskailerak neurria.

JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxa: 943 67 36 55
Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa 20491 LEABURU

Arraiak parrilan

☎ 943 65 21 76

ABALTZISKETA

ZALBIDE

TOLARE
SAGARDOTEGIA

LEIAR

KRISTALDEGIA

ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g
☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea
☎ 943 88 60 70
BEASAIN



Ordizia

Artzain eguna apirilaren 15ean izango da

Goizean zehar, asteroko ohiko feria egingo da, gaztasalmentarako saltokiak jarriko dira, baita Goierriko artisautza-produktuak ere eta trikitixa, dultzainero eta abarrek alaituko dute herria.

9:00etan: Ahari eta ardien erakusketa-lehiaketa. Arkumea buruntzian prestaketa, Garagartza Plazan.

11:00etan: Artaldeak igaroko dira herrian barrena.

11:15ean: Idiazabal gaztaren denboraldi berriaren aurkezpen ofiziala, Barrena Kultur Etxeko Batzar Aretoan. Gastaren ebaketa. Aldez aurretik gazta kalitatearen eta erregulartasunari sariak emango dira.

11:30etan: Gazta egitea. Garagartza Plazan.

11:30ean: Arkumea buruntzian dastatzeko aukera Garagartza Plazan, Aspanovas-Gipuzkoa Haur Minbiziduen Gurasoen Elkartearen alde.

12:15ean: Ile-mozte erakustaldia Garagartza Plazan.

13:00etan: Lehiaketa guztien garaikurrak banatzea Garagartza Plazan.

17:00etan: D'Elikatuz-en Iker Markinez, Ormaiztegiko Kuko Jatetxeko arduradunak, Idiazabal gaztarekin presentatu ditzakegun hainbat errezeten berri emango digu.

Zegama

Erlezain eguna, apirilaren 5ean

Apirilak 1, asteazkena:

14:30ean: Aitxuri Herri Eskolan, ezti dastatzea ikasleei zuzenduta, Gipuzkoako Erlezain Elkartearen eskutik.

Apirilak 4, larunbata:

16:30ean, hitzaldia 'Eztia eta Osasuna' gaitzat hartuta Antonio Gomez Pajueloren eskutik. Gaztelaraz.

20:00etan: 2009ko Urrezko Aizkolarien txapelketa.

Apirilak 5, igandea: Erlezain eguna:

10:00etan: Txistulariekin kalejira goizean zehar.

10:30ean: Jaiaren hasiera:

Goizean: Gozogileen produktuen erakusketa.

11:00etan: Gipuzkoako XI. Ezti lehiaketaren hasiera (milalorea erako eztiaren lehiaketa izango da eta bailarako txapelketetan sarituak aurkez daitezke bakarrik).

11:15ean: Erlekumearen bilketa.

12:00etan: Ezti dastatze gidatua Antonio Gomez Pajueloren gidaritzapean.

12:15ean: Durrunbaren hasiera Aseginolaza Anaïen kaltetik.

13:00etan: Urteko erlezainak omenduko dira: Kandido Urreizti, Asensio Ansorregi, Inazio Mujika eta Juan Inazio Mendizabal.

13:30ean: XI. Ezti lehiaketako sari banaketa

13:45etan: Gozoki zein eztiaren doaneko dastatzea.

14:15ean: Bazkari herrikoia herriko Ostatuan. Txartelak 22 euro balio du. Izen-ematea udaletxean (943801115), martxoaren 27a baino lehen.

17:30ean: Tobera Musika Eskolako trikitilariak.

18:30ean: Udal pilotalekuan, bertso jaialdia, Kasino Elkarteak antolatu eta Zegamako Udal Kultura Batzordeak babestuta. Bertsolariak: Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Aitor Mendiluze, Iker Zubeldia, Amaia Agirre eta Jesus Mari Irazu. Gai jartzailea: Egoitz Aizpuru.

Egunean zehar...

- ✓ Aitxuri Herri Eskolako haurren marrazki erakusketa.
- ✓ Txosnak: Artisautza, produktu ekologiko, sendabelar, ezti, argizari, propolio, kandela... Talogileak.
- ✓ Herriar zein elkarten postuak: Aizkorriko Lagunen Elkartea, Turismo Bulegoa eta Gipuzkoako Erlezain Elkartearen (GEE) informazio gunea.
- ✓ Erlearen munduko tresnen erakusketa: erlauntz, hauspo, espatula, estraktore, mozorroa...
- ✓ Erakusketa mugikorra, erlezaintza eta ingurumena, panel informatibo batzuk kokatuko dira kalean.
- ✓ Erleak zuzenean: Jendearen jakin-mina bete asmoz, kristalezko (PVC) kaja antzeko batzuk erabiliaz, erlek erlauntzaren barruan izaten duten bizitza ikusi ahal izango da.
- ✓ 'Argizaria lantzen' erakusketa praktikoa.
- ✓ Euskal Herriko gozoki onenen doaneko dastaketa.
- ✓ Adarraga gozotegiko txokolate beroa eta Mahalaren yogurt-ak eztiarekin doan dastatzeko aukera.



Goierri

Argi Berri, Axari eta Aztiri sariak, Osinalderen atariko

Argi Berri saria:

Martxoaren 28an, Ordiziako Argi Berri elkarteak. Afaria 20:30ean. Jarraian, bertso sariketa. Bertan parte hartuko duten bertsolariak: Kristiñe Txoperena (Hendaia), Hodei Iruretagoiena (Zarautz), Oier Aizpurua (Zarautz), Maddalen Arzallus (Hendaia), Odei Barroso (Urruña) eta Beñat Iguaran (Amasa-Villabona).

Axari saria:

Apirilaren 3an, Idiazabalgo Axari elkarteak. Afaria, 20:30ean hasita. Bertsolariak: Jone Uria (Getxo), Adur Gorostidi (Altzo), Aritz Garin (Billabona), Miren Amuriza (Berriz), Arrate Illaro (Getxo) eta Ekhi Erramundegi (Baiona).

Aztiri saria

Apirilaren 18an, Aztiri auzoko Aztiri elkarteak. Afaria, 20:30ean. Bertsolariak: Maialen Velarde (Zumaia), Unai Gaztelumendi (Añorga), Julen Agirre (Beasain), Mikel Artola (Alegi), Ekaitz Samaniego (Gasteiz) eta Saioa Alkaiza (Iruñea).

Osinalde saria

Sariketa bakoitzetik bina bertsolari sailkatuko dira, apirilaren 25ean jokatu den Gabiriako Osinalde sariketarako.

Beasain

Neguko bertso saioa

Arrano Kultur Elkartek antolatzen Neguko bertsopaper lehiaketaren sari banaketa, martxoaren 27an egingo da, Usurbe Antzokian izango den bertso saioaren barruan. Gaueko 10,30etan hasiko da saioa. Sari emate aitzakian, sei bertsolari arituko dira kantuan: Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Iker Zubeldia, Amets Arzallus, Gorka Maiz eta Julen Agirre.

Ordizia

Plan, plin, plan

Ordiziako Hitzaro Euskara Elkartek Aste Santuan antolatuko duen Plan, Plin, Plan goizeko aisia ekintzan izen-emateko epea zabalik dago martxoaren 31 arte. Goizeko aisia ekintza apirilaren 6, 7, 8, 14, 15, 16 eta 17an izango da. Izena emateko Hitzaro Euskara Elkartearen bulegora jo behar da, Egutera bidea, 5. Telefonoz egiteko 943162366 zenbakira deitu behar da edo hitzaro@gmail.com helbidearen bidez ere egin liteke. Matrikulak 30 euroko kostua du eta Hitzaroko bazkiden seme-alabentzat 24 eurokoa.



ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA

txekin

zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 5 behea
ORDIZIA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble
- ajentzia

9:30etik 19:00etara
EGUARDIZ IREKITA

Harpidetza txartela

Urteko kuotak:

☐ **Goierri** 27 euro Egin ☒ bat ☐ **GOIERRIKO hitza** 67 euro
aukeratutako kaxan

☐ **Goierri** + **GOIERRIKO hitza** 72 euro

Izen-abizenak:.....

Helbidea:..... Herria:.....

Telefono zenbakiak:..... NAN:.....

Kontu zenbakia(20 digitu):.....

Bidali txartel hau helbide honetara:
Goierritarra, Urbalde plaza 7
behea, Beasain

SOLOZABAL AUTO-ESKOLA

**Mota guztietako
gida-baimenak**

Aita Urdaneta

ORDIZIA

☎ 943 88 72 76

Lazkao

Kulturaldia

Martxoak 31, asteartea:

18:30ean: Liluratura: 'Haragia', Eider Rodriguez. Gerriko txokoan.

Apirilak 1, asteazkena:

16:30ean: Haurrentzat jolasak eta Korrika Txikia Maizpide Euskaltegiko ikasleak arduradun direla. Plazan.

Apirilak 2, osteguna:

06:10ean Korrika 16.

20:00etan: Mintzalagunentzat bertso-afaria, Maizpide Euskaltegian.

Apirilak 3, ostirala:

Goizean: 'Antzarren XIX. bertso-papere' banaketa eta haurrentzat bertso saioa, San Benito ikastolan.

15:30ean: Gazteentzat bat-bateko bertso saioa, Goierriko bertso eskolako eskutik, San Benito ikastolan.

21:00etan: Bertso afaria: Sebastian Lizaso eta Jokin Sorozabal, Lazkaomendiko Lartxai elkarte.

Apirilak 5, igandea:

12:30ean: Lazkao Txiki gogoan: Oin-Arin dantza taldea, Lazkaoko bertsolariak, Lazkao Txiki Musika Eskolako emanaldia, salda, trikitilarien emanaldia, Lazkao Txiki Zelaian.

Gabiria

Udaberri kulturala

Apirilak 12, igandea: Aberri eguna:

12:00etan: Meza Nagusia. Ondoren, Goruntz dantza taldearen saioa, herriko bertsolariak eta alkatearen agurra.

Apirilak 18, larunbata:

20:30ean: Aztirin, bertsolari gazteen Aztiri Saria, Osinalde txapelketarako 3. kanporaketa.

Apirilak 19, igandea: Dantzari Txiki eguna:

Goizean: Talde ezberdinen dantzak.

16:30ean: Gaztelu puzgarriak, Quad pista eta jolasak.

Apirilak 20, astelehena:

17:00etan: Sukaldari ikastaroa, Erbie elkarte, Ostatu-ko sukaldarien eskutik.

Apirilak 21, asteartea:

17:00etan: D'Elikatuz-ekoen hitzaldia Kultur Etxean.

Apirilak 23, osteguna:

17:00etan: 'Aurorita beti polita' ipuin kontaketa Kultur Etxean.

Apirilak 24, ostirala:

22:00etan: 'Ate joka' antzezlan, Elizako antzokian.

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

**Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak**

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Arkupe

ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAIK

J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA

Ikaskide
irakaskuntza eta pedagogia

Joan Iturralde, 5 - Beasain
943 160 120 (arratsaldez)
www.ikaskide.net

ESKOLA LAGUNTZA:
Lehen Hezkuntza, DBH,
Batxilergoa, moduluak

INFORMATIKA:
Mekanografia, Word, Acces, Excel

IKASKETA TEKNIKAK

UNIBERTSITATE MAILA:
Enpresaritza, Injeniaritza,
Kimika eta Fisika

INGELERA:
Maila guztiak, PET,
First Certificate, mintza praktika

Eskaintza berria: **FRANTSESA**

**AUZOKI**
Komunitateen administrazioa
Kol. Zenb. 599

- ✕ Jabekideen komunitatea osatzea
- ✕ Komunitateen kontabilitatea
- ✕ Akten idazketa
- ✕ Aurrekontuen eskaera
- ✕ Aholkularitza legala
- ✕ e.a.


Urdaneta 52-behea
ORDIZIA
Tel.: 943 087 486



Gabirian Izartxiki baserriko sendia 1942. urte inguruan

Mandiola Zufiaurre sendia ageri da, gurasoak eta 3 alaba, Joxe semea falta da argazkian.

Ezkerretik eskuinera: Isabel Mandiola, Maria Zufiaurre Mendizabal (ama, izatez Ormaiztegiko Sosoaga baserrikoa), Kandida Mandiola, Baxilio Mandiola Izagirre (aita) eta Maria Mandiola.



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)

659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk.

ZALDIBIA



● Pintxo hotz eta beroak

● Ogitartekoak

Legazpi kalea, 3

ORDIZIA

☎ 943 16 03 04

IBAI ONDO



ARROZTEGIA

Logela, egongela
eta sukaldeko
altzari nahiz
osagarrietan
aukera paregabea

Altzariak neurrira

Mota guztietako aroztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 - 639 631 640 faxa: 943 16 47 47
Antzizar-Katea, 5 **BEASAIN**



ASEPLAN S.L.
A HOLKULARITZA - ENPRESAK

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA



Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea

BEASAIN

Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g

lore eta landareen udaberriko 9. azoka

2009ko martxoaren 29an
goiz eta arratsaldean

SEGURAN

EGITARAUA

10etan, AZOKAREN IREKIERA

- Kriseilu txistulariak eta herriko trikitilariak
- Lore eta landare erakusketa eta salmenta
- Eskualdeko artisautza eta produktuak

10:30etatik 14:00etara, IKUSKIZUNA plaza inguruan

"Txerto ezberdinak fruitarboletan" Josu Osaren eskutik

Arratsaldeko 16:30etatik 19:00etara

Azokaren jarraipena

ERAKUSKETA, Ardixarran

"OBJEKTIBOTIK: EUSKAL NATURA ARGAZKITAN"

Martxoaren 13tik apirilaren 19ra




reklame

BARANDIARAN
zeramikak

ERREF. MAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJ

SEMPERE KALEA. 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com




AS9

ASTE SANTUA
2009

NORA JOAN AUKERATU ZUK

eta gainontzekoa
egingo dugu guk

T 943 80 53 11
abio@abio.es



VIAJES
ABIO

BIDAIAK

1999 2009

Kanariar irlak

Fuerteventura > 643.00€-tik hasita
Irteera apirilaren 4an eta 11an

Las Palmas > 761.00€-tik hasita
Irteera apirilaren 5ean eta 12an

Tenerife > 602.00€-tik hasita
Irteera apirilaren 5ean, 9an eta 12an

Lanzarote > 650.00€-tik hasita
Irteera apirilaren 4an, 8an eta 11an

Mediterraneo eta Europa

09/04/08 - 09/04/13

Costa Brava > per./142.60€-tik hasita
Olimpic H - PC

Costa Dorada > per./172.20€-tik hasita
California Garden H - PC

Costa Azahar > per./208.60€-tik hasita
Apartservice Eurhostal - PC

Costa Blanca > per./143.80€-tik hasita
Esmeralda H- PC

Costa Almeria > per./193.20€-tik hasita
Best Pueblo Indalo Apthotel - PC

Costa del Sol > per./266.80€-tik hasita
Oferta SOL Principe H - PC

Praga > 593.00€-tik hasita
Irteera apirilaren 9an eta 13an

Lisboa > 527.00€-tik hasita
Irteera apirilaren 9an

Marrakech > 664.00€-tik hasita
Irteera apirilaren 8an

Estambul > 609.00€-tik hasita
Irteera apirilaren 9an eta 13an

Hegazkina + Hoteleria garraioa + Hotela
PC: Mantenu osoa (Pensión completa)